

AMAREN LELOA
(Trueba)

Otzak dira egunak,
luze yakuz gau arrak;
leio irrikaetan
uluz diardu iparrak.

Lo, lo guri, enetxo!,
neure altzo beroan;
egin lo, posplintxu!,
neure biotz alboan.

Lotan guztiak gabaz,
saminge ta narorik;
zeu bakar, ene maitel!,
zagokidaz itxarrik.

Lo datza, kukurio,
mitxiña bazterrean;
ez dabe eresi kirkillak,
len bezela, larrean...

Baiña zegaitik, potin!,
begira zuk leiora?
Iduri izukorren bat
datorkizu gogora?

Zek ikaratzen zaitu?
Illargiaren izpiak?
Oska datorren eurik,
ala aize negartiak?

Lo egizu, jzartxu,
lo biar artegiño;
ez izan ipar ta uren
bildur, arren, maiteiño!

Ba... umetxo ule kiskur
lotan dagon artean,
ama ta gotzonak
datzaz seask-ertzean.

GURA NEUKE

Itoka doa bizitza,
pendiz beera ariña;
ez miazkatu nai izan
bestek amets egiña.

Lasterka doa joana
erreka zulo mutur,
Ixil zarraren mendean
arri ibillien zintzur.

Giza-sortzeak gelditzen
dira amesetan dindil;
bakar, aizearen tresna,
idazlearen aril.

Itxas-urak lur egala
aparrez dau zuritzen;
nik, geroaren jzarra
jarri nai dot argitzen.

Nik gura neuke bizi
—biar!, gero!— dizdizean:
oroitarri lez lastua,
amets naiz sorpenean.